


ORIENTATZAILE ENTZAKO BALIABIDEAK



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

ORIENTATZAILE ENTZAKO BALIABIDEAK

EDUKIAK

SARRERA	4
I. BLOKEA: LHko SISTEMARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA	6
LH BERRIAREN EGITURA	6
HEZKUNTZA-SISTEMAREN ESKEMA OROKORRA	11
II. BLOKEA: LH IKASTEKO INTERESA DUTEN PERTSONEI ZUZENDUTA	13
LANBIDE HEZIKETAKO ESKAINTZA	14
III. BLOKEA: LH IKASTEN DUTEN PERTSONEI ZUZENDUTA	18
LH DUALA	19
SALBUESPENAK, BALIOKIDETASUNAK, HOMOLOGAZIOAK ETA BALIOZKOTZEAK	19
HASIERAKO LANBIDE HEZIKETA	21
HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK (HLBP) DITUZTEN IKASLEENTZAKO APARTEKO NEURRIAK	21
IKASGUNEA	22
EKINTZAILETZA ETA BERRIKUNTZA	22
IBILBIDE PROFESIONALA KUDEATZEA	23
IV BLOKEA: IKASGELATIK ENPRESARA:	25
LAN-MUNDUAN TXERTATZEA	26
LANBIDE ARAUTUAK	26



V. BLOKEA: ENPRESATIK IKASGELARA, ESPERIENTZIA 27 PROFESIONALA DA NIRE TITULUA

KONPETENTZIA PROFESIONALAK EGIAZTATZEA 28

IKASKUNTZA-BITARTEKARITZARAKO ESKUALDEKO 29
 ZERBITZUAK

ERANSKINAK 30

I. ERANSKINA. GLOSARIOA 31

II. ERANSKINA. «TODO FP» GLOSARIOA 34

III. ERANSKINA. BIBLIOGRAFIA ETA LEGEDI 34
 GARRANTZITSUENA




SARRERA

EAEko Hezkuntza Orientazioaren Estrategiaren (2023-2026) esparruan, Lanbide Heziketan Orientaziorako Planari dagokionez, eta informazio eta orientazio profesionaleko departamentuaren baliabideak eta gaitasunak indartzeko helburuarekin, interbentzio eraginkorrago eta integralagoak sustatzeko asmoz, Euskadiko LH ikastetxeetako profesionalak Informazio eta Orientazio Profesionalaren arloan trebatzeko proposamena egiten da.

Orientatzaileek Lanbide Heziketako informazio eta orientazioari buruzko galderak erantzun ahal izateko, baliabide multzo bat aurkezten dugu. Horien bidez, Lanbide Heziketako gaitasun eta birgaitasun profesionalari, baita lan mundurako sarbideari buruzko informazioa arautu, zabaltzeko eta, oro har, Lanbide Heziketari buruzko informazioa ematen duten zabaltzen duten erakunde ofizialen webguneetara sar daiteke.

Dokumentu hau baliabide bizi gisa ulertzen da, etengabeko eguneraketan dagoena, eta Lanbide Heziketako orientaziorako intereseko estekak eta materialak biltzen dituena. Bilduma dinamikoa eta irekia denez, baliteke zenbait esteka aldatzea edo denborarekin ez funtzionatzea. Horregatik, gomendagarria da informazioa aldi-aldi berrikustea eta iturriak egiaztatzea, edukirik eguneratuenak eta esanguratsuenak eskuragarri egon daitezen bermatzeko.




I. BLOKEA

LHKO SISTEMARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA


LH BERRIAREN EGITURA	7
A gradua: Konpetentzia partzialaren egiaztagiria (1., 2. edo 3. mailak)	9
B gradua: Konpetentzia-ziurtagiria (1., 2. edo 3. mailak)	9
C gradua: Ziurtagiri profesionala (1., 2. edo 3. mailak)	9
D gradua: Lanbide Heziketako heziketa-zikloak	9
E gradua: Espezializazio-ikastaroak	10
HEZKUNTZA-SISTEMAREN ESKEMA OROKORRA	11
Araubide bereziko irakaskuntzak	12

LH BERRIAREN EGITURA





IKASKUNTZA-AUKEREN MAPA LANBIDE-HEZIKETA BERRIAN



3/2022 Lege Organikoa, martxoaren 31koa, Lanbide Heziketa antolatua eta integratzea, eta 659/2023 Errege Dekretua, uztailearen 18koa, Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garrantzuen duena.

NIFO T64-24-128-7

Sartzeko baldintzak

- A** Ez da betekizun akademiko edo profesionalik eskatzen, baina bai komunikazio-gaitasun nahikoak: AN1, AN2 eta AN3.
- B** Ez da betekizun akademiko edo profesionalik eskatzen, baina bai komunikazio-gaitasun nahikoak: BN1, BN2 eta BN3.
- CN1** Ez da betekizun akademiko edo profesionalik eskatzen, baina bai komunikazio-gaitasun nahikoak.
- CN2** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza / N2 Lanbide-ziurtagiria / titulu horren N2 Gaitasun-ziurtagiria / familia profesional bereko N1 Lanbide-ziurtagiria.
- CN3** Teknikaria / Goi-mailako Teknikaria / Batxilergoa / N3 Lanbide-ziurtagiria / titulu horren N3 Gaitasun-ziurtagiria / familia profesional bereko N2 Lanbide-ziurtagiria.
- DN1** 15 urte / Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila / Salbuespen gisa, DBHko 2. maila / titulu horren N1 lanbide-ziurtagiria / Kolektibo berezientzako modalitateak
- DN2** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza / Oinarrizko teknikaria / Teknikaria / titulu horren N2 lanbide-ziurtagiria / Sarbide-ikastaroa / Sarbide-proba
- DN3** Teknikaria / Batxilergoa / titulu horren N3 lanbide-ziurtagiria / Sarbide-ikastaroa / Sarbide-proba / Goi-mailako teknikaria / Unibertsitateko gradua
- EN2** Teknikaria / Teknikari edo Goi-mailako teknikari ezberdina + lan-erperientzia edo gaitasun-proba / Teknikari-titulurik gabe, baina alde aurreko beste ezagutza batzuekin
- EN3** Goi-mailako Teknikaria / Goi-mailako teknikari ezberdina + lan-erperientzia edo gaitasun-proba / «Goi-mailako Teknikaria» titulurik gabe, baina alde aurreko beste ezagutza batzuekin

Emateko modalitateak

Aurrez aurrekoa

Jardun bikoa

Online

Prestakuntza-programak enpresetan edo pareko erakundeetan

Enpresaren eta bertako langileen prestakuntza-beharrei erantzuteko

Kompetentzia Profesionalen Estandarren Katalogo Nazionalari lotutako prestakuntza ez-formalak

Bestelako prestakuntza-programak

Lana behar baino lehen uzten duten eta kualifikazio profesionalik ez duten 17 urtetik gorakoentzat

Gizatalde zehatzak

Hezkuntza- edo prestakuntza-premia bereziak

Ikasteko edo gizarteratzeko zailtasun bereziak

Militarrak

Askatasunaz gabeko pertsonak

Modularra C D E

Integratutako ibilbid. B B D1 D2 D E

Titulazio bikoitzak D D E E



A GRADUA: KONPETENTZIA PARTZIALAREN EGIAZTAGIRIA. (1., 2. edo 3. mailak)

Lanbide Heziketako Sistemaren oinarrizko eskaintza da, eta konpetentziak eguneratu behar dituzten langileei zuzendua dago batez ere.

Sarbidea:

Ez da betekizun akademiko edo profesionalik eskatzen

Lortuko den titulua:

Konpetentzia partzialaren egiaztagiria.

B GRADUA: KONPETENTZIA-ZIURTAGIRIA. (1., 2. edo 3. mailak)

Lanbide Heziketako Moduluen Katalogoan jasotako modulu profesional batekin bat datorren prestakuntza-eskaintza partziala da, eta konpetentziak eguneratu behar dituzten langileei zuzenduta dago batez ere. Gainera, ziurtagiria konpetentzia profesionalen estandar bati edo gehiagori lotuta egongo da beti.

Sarbidea:

Ez da betekizun akademiko edo profesionalik eskatzen.


Lortuko den titulua:

Konpetentzia ziurtagiria.

C GRADUA: ZIURTAGIRI PROFESIONALA. (1., 2. edo 3. mailak)

Lan-merkatuan garrantzi handia duten hainbat modulu profesionalak osatutako eskaintza partzial metagarria da.

Sarbidea:

Ikusi hemen bete beharreko baldintzak. 

Lortuko den titulua:

Ziurtagiri profesionala.

D GRADUA: LANBIDE HEZIKETAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Lanbide Heziketako «Oinarrizko Teknikaria» (Oinarrizko Maila), «Teknikaria» (Erdiko Maila) edo «Goi-mailako Teknikaria» (Goiko Maila) tituluak lortzea ahalbidetzen duten eskaintzak dira.

Oinarrizko mailako heziketa-zikloak:

Oro har, oinarrizko mailako heziketa-zikloak izango dira Konpetentzia Profesionalen Estandarren Katalogo Nazionalako 1. mailako konpetentzia-estandarrei lotutakoak, eta ziklo horien helburua –hain zuzen ere– konpetentzia profesionalak, enplegarritasunerako konpetentziak eta bizialdi osoko ikaskuntza etengabeak eskaintzen dituen gaitasunak eskuratzea izango da.

Sarbidea:

Ikusi hemen bete beharreko baldintzak. 

Lortuko den titulua:

«Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua» eta «Oinarrizko Teknikariaren titulua» dagokion espezialitate-arloan.



Iraupena: 2 ikasturte akademiko (2081 ordu).

Erdi-mailako heziketa-zikloak:

Oro har, erdi-mailako heziketa-zikloak izango dira Konpetentzia Profesionalen Estandarren Katalogo Nazionaleko 2. mailako kompetentzia-estandarrei lotutakoak.

Sarbidea:

Ikusi hemen bete beharreko baldintzak. 

Lortuko den titulua:

Lanbide-heziketako teknikaria.



Iraupena: 2 ikasturte akademiko (2182 ordu).

Goi-mailako heziketa-zikloak:

Oro har, goi-mailako heziketa-zikloak izango dira Konpetentzia Profesionalen Estandarren Katalogo Nazionaleko 3. mailako kompetentzia-estandarrei lotutakoak.

Sarbidea:

Ikusi hemen bete beharreko baldintzak. 

Lortuko den titulua:

Lanbide-heziketako goi-mailako teknikaria.



Iraupena: 2 ikasturte akademiko (2182 ordu).

E GRADUA: ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROAK

LHko titulua jada duten edo ikastaroetan sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonen kompetentziak osatzen dituzten eskaintzak dira.

Erdi-mailako espezializazio-ikastaroak:

Sarbidea:

Ikusi hemen bete beharreko baldintzak. 

Lortuko den titulua:

Tituluan lantzen den arlo profesionaleko espezialista.



Iraupena: 600 eta 900 ordu artean.

Goi-mailako espezializazio-ikastaroak:

Sarbidea:

Ikusi hemen bete beharreko baldintzak. 

Lortuko den titulua:

Lanbide Heziketako Masterra



Iraupena: 600 eta 900 ordu artean.

ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZAK

Araubide bereziko irakaskuntzaren bat ikasteko interesa baduzu, honako esteka hauek jo dezakezu horiei buruzko informazioa lortzeko:



Kirolak



Arte plastikoak eta diseinua



Musika



Dantza



Arte dramatikoa



II. BLOKEA

LH IKASTEKO INTERESA DUTEN PERTSONEI ZUZENDUTA

LANBIDE HEZIKETAKO ESKAINTZA	14
Ibilbideak eta horiek eskaintzen dituzten aukera akademikoak, prestakuntzakoak eta profesionalak	14
Nola aukera dezaket nire interesetara hoberen egokitzen den LHko titulua?	14
Euskadin eskaintzen diren titulu guztiei buruzko informazioa	14
Zer modalitate eskaintzen dira?	15
Non ikas dezaket beste autonomia-erkidego batzuetan?	15
Modulu bakar batean matrikulatu naiteke?	15
Zer baldintza bete behar ditut Lanbide Heziketa aurrez aurre egin ahal izateko?	15
Nolakoa da LHko heziketa-zikloetako onarpen-prozesua?	15
Noiz eta nola eskatu behar dut LHko plaza?	16
Heziketa-zikloetarako sarbide-probak	16
LHko tituluak eskuratzeko proba libreak	16
Zer titulu lortuko dut ikasketak burutu ondoren?	17

LANBIDE HEZIKETAKO ESKAITZA

IBILBIDEAK ETA HORIEK ESKAITZEN DITUZTEN AUKERA AKADEMIKOAK, PRESTAKUNTZAKOAK ETA PROFESIONALAK

Tresna hauen laguntzaz, zure lanbide-heziketako ibilbidea orienta dezakezu:

- » Hautatu zure ibilbidea - orientaziorako tresna [↗](#)
- » Heziketa-zikloetako profil profesionalak [↗](#)

Hona hemen lanbide-heziketako titulu bat aukeratzeko eta informazioa bilatzeko baliagarriak izan daitezkeen beste gune interesgarri batzuk:

- » Futurelan [↗](#)
- » Lanbide: Heziketa-zikloen laneratze-maila [↗](#)
- » Etorlan [↗](#)
- » EUSKAL LHren EGUNGO EGOERA.- Erronkei erantzunez [↗](#)

NOLA AUKERA DEZAKET NIRE INTERESETARA HOBEREN EGOKITZEN DEN LHKO TITULUA?

Ikasi nahi duzun LHko heziketa-zikloa argi izan ezean, informazioa eska dezakezu LHko zentroren batean, edo, bestela, test bat osatu ere egin dezakezu jarraian agertzen den estekan sakatuz. Izan ere, test horrek 5 heziketa-ziklo proposatuko dizkizu, erantzuten duzunaren arabera.

- » Fpbide [↗](#)

EUSKADIN ESKAITZEN DIREN TITULU GUZTIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Hezkuntza Sailaren webgunean kontsulta dezakezu [EAEko LHko hezkuntza-eskaintza](#) eguneratua (bai herrien eta ikastetxeen arabera, bai lanbide-arloen eta hezkuntza-mailen arabera), baita heziketa-ziklo bakoitzaren modalitatea, hizkuntza eta ibilbidea ere.

EAEko lanbide-heziketako titulu bakoitzari buruzko informazio gehiago aurki dezakezu [EIEIren webgunean](#) eta [LHSl tresnan](#).

Gainera, [FP Euskadi](#) aplikazioa topa dezakezu Eusko Jaurlaritzaren webgunean eta Google Play aplikazio-dendan; eta, app horri esker, zure mugikorrean bertan kontsulta dezakezu eskaintza erraztasun osoz.

Hona hemen eskaintzari buruzko informazioa eskuratzeko beste leku batzuk:

- » LHko ikastetxeetako atea zabaltzeko egunak (galdetu noiz egingo diren zure interesekoa den ikastetxean).
- » Ikaslan Bizkaia [↗](#)
- » Ikaslan Araba [↗](#)
- » Ikaslan Gipuzkoa [↗](#)
- » HETEL [↗](#)
- » AICE-IZEA [↗](#)
- » LHri buruzko informazio-azokak (Avanza, besteak beste).

ZER MODALITATE ESKAINTZEN DIRA?



AURREZ AURREKOA

Gehien eskatzen den modalitatea da, eta eskoletara erregularitasunez joatea dakar, etengabeko ebaluaziorako eskubidea ez galtzeko. Modalitate hau egunez, arratsaldez edo gauez jasotzeko aukera dago.



TELEMATIKOA ETA JARDUN BIKOA

Euskadin, Ikaskuntza Birtual eta Digitalizatuen LHllak eskaintzen du modalitate hau (BIRTLH). Ikastetxe paregabe eta berezia da, eta bertan eskaintzen den «modulutan banatutako eskaintzak» heziketa malgua eskaintzen du. Horri esker, aurrez aurreko prestakuntza jaso ezin dutenek ikaskuntza-ibilbide ugarien artean hauta dezakete. Modulu bakoitzeko konpetentziek hala eskatzen dutenean, prestakuntza telematikoa eta aurrez aurreko saiok konbina daitezke. Aurrez aurreko saiok horiek ikastetxe laguntzaileek osatutako sare zabal baten bidez emango dira, eta, horri esker, hiru lurraldeetako ikasleek zerbitzua jasotzeko aukera izango dute.

www.birt.eus 

NON IKAS DEZAKET BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUETAN?

Beste autonomia-erkidego batean burutu nahi badituzu zure ikasketak, [esteka honetan](#) titulu bakoitza Estatuko zein tokitan eskaintzen den kontsulta dezakezu.

[Beste autonomia-erkidego batzuetan urrutitik ikasteko aukera](#) ere baduzu.

MODULU BAKAR BATEAN MATRIKULATU NAITEKE?

LHko titulua lortzeko beharrezkoa den moduluren bat egiteke baduzu, harremanetan jar zaitezke formakuntza hori eskaintzen duen ikastetxearekin. [ESTEKA](#).

ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITUT LANBIDE HEZIKETA AURREZ AURRE EGIN AHAL IZATEKO?

[Esteka honetan](#) kontsulta ditzakezu Ziurtagiri profesionalak, Oinarrizko mailako heziketa-zikloak, Erdi-mailako heziketa-zikloak, Goi-mailako heziketa-zikloak eta Espezializazio-ikastaroak egin ahal izateko baldintzak.

NOLAKOA DA LHKO HEZIKETA-ZIKLOETAKO ONARPEN-PROZESUA?

Lanbide Heziketako zikloetako plazak esleitzeko prozesuan parte hartu nahi duten guztiek behin-behineko izen-ematea egin beharko dute.

Aurreinskripzioan, nahi adina plaza eska daitezke. Zenbat eta plaza gehiago eskatu, orduan eta aukera gehiago izango dituzu sistemak plaza bat esleitzeko; eta, horregatik, gutxienez 10 plaza eskatzea gomendatzen dugu.

Aurreinskripzioa egiten ez duten pertsonak esleitu ez diren eskaintako plazetan bakarrik matrikulatu ahal izango dira, ezohiko epean (ikus egutegia).

[ESTEKA honetan](#), honako hauei buruzko informazioa aurkituko duzu: heziketa-zikloen eskaintza, zerrendak, aplikatu beharreko araudia, Oinarrizko, Erdi-mailako, Goi-mailako LHko zikloetan eta Espezializazio-ikastaroetan sartzeko prozesua, kuotak eta kontuan hartuko diren lehentasunak.

NOIZ ETA NOLA ESKATU BEHAR DUT LHKO PLAZA?

Esteka honetan kontsulta daitezke aurreinskripzioa eta matrikula egiteko epeak, baita ikasleak onartzeko prozesuari buruzko informazio guztia ere (tasak, kuotak, gutxienerako notak, etab.).

Hona hemen gutxi gorabeherako datak:

- » **OHIKO ALDIA:** maiatza.
- » **EZOHIKO ALDIA:** iraila.

HEZIKETA-ZIKLOETARAKO SARBIDE-PROBAK

Heziketa-zikloetarako sarbide-proben xedea eskatutako titulu akademikorik ez izateagatik zuzenean sartu ezin direnei ziklo horiek egiteko aukera ematea da.

Erdi-mailako heziketa-zikloetarako sarbide-proben helburua ikasketa horiek probetxuz egiteko behar diren eza-gutzak eta trebetasunak egiaztatzea da.

Goi-mailako heziketa-zikloetarako sarbide-proben helburua bi alderdi egiaztatzea da: alde batetik, ikasleak batxilergoko helburuen arabera heldutasuna dutenetz; eta, bestetik, egin nahi den ziklorako eskatzen diren eza-gutzak zehatzak dituztenetz.

Hezkuntza-administrazioak heziketa-ziklo eta ikasturte bakoitzean eskaintzen diren plaza guztien ehuneko jakin bat gorde ahal izango du, sarbide-probak gainditu dituzten ikasleei eskaintze aldera.

Probak euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango dira, eta ikasleek aukeratuko dute hizkuntza.

Gainditutako Heziketa-zikloetarako sarbide-proba guztiak estatu osoan izango dira balioudunak.

Ondorengo alderdi hauei buruzko informazio gehiago aurkituko duzu esteka honetan 

- » Inskripzioa
- » Egutegia
- » Prozesua
- » Onarpen-baldintzak
- » Probaren egitura eta gai-zerrendak, besteak beste

LHko TITULUAK ESKURATZEKO PROBA LIBREAK

Proba libreek baldintzak betetzen dituzten interesdunei aukera ematen diete «Teknikaria» edo «Goi-mailako teknikaria» tituluak lortzeko.

Esteka honetan, proba horien ezaugarriak, matrikulazioari, baldintzei, tituluei eta proiektuetako moduluei, titulua eskatzeko moduari eta zerrendei buruzko informazio guztia aurkituko duzu.

ZER TITULU LORTUKO DUT IKASKETAK BURUTU ONDOREN?

Tituluak ofizialak dira, eta balio akademiko eta profesional bera izango dute estatu osoan.
Lanbide Heziketan lortuko diren tituluak honako hauek dira:

Oinarrizko mailako heziketa-zikloak:

«Oinarrizko teknikaria» titulua eta DBHko titulua.

Erdi-mailako heziketa-zikloak:

«Teknikaria» Titulua (derrigorrezko bigarren hezkuntza ondokoa).

Goi-mailako heziketa-zikloak:

«Goi-mailako Teknikaria» Titulua (goi-mailako heziketa).

Espezializazio-ikastaroak:

«Especialista» (ikastaroa erdi-mailakoa bada) edo
«Lanbide Heziketako Masterra» (ikastaroa goi-mailakoa bada).



III. BLOKEA

LH IKASTEN DUTEN PERTSONEI ZUZENDUTA

LH DUALA	19
SALBUESPENAK, BALIOKIDETASUNAK, HOMOLOGAZIOAK ETA BALIOZKOTZEA	19
Salbuespenak	19
Baliokidetasunak	20
Homologazioak	20
Baliozkotzeak	20
HASIERAKO LANBIDE HEZIKETA	21
Ibilbideak	21
HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK (HLBP) DITUZTEN IKASLEENTZAKO APARTEKO NEURRIAK	21
IKASGUNEA	22
EKINTZAILETZA ETA BERRIKUNTZA	22
Proiektu bati ekitea LHko nire ikastetxetik	22
Enpresak sortzea	22
IBILBIDE PROFESIONALA KUDEATZEA	23

LH DUALA

Lanbide Heziketako eskaintza guztiak —Lanbide Ziurtagiria, Lanbide Heziketako titulua, Espezialista titulua edo Lanbide Heziketako Masterra eskuratzeko bideragarriak direnak— dual izateko izaeraz egingo dira, honako eskaintza-erregimenetako baten pean:

- **ARAUBIDE OROKORRA:** Enpresarekin kontratu-loturarik gabe.
- **ARAUBIDE INTENTSIBOA:** Enpresarekin kontratu-lotura duena, Ikas-ekinezko Prestakuntzarako kontratuaren bidez edo enpresak ordaindutako beka baten bidez. Pentsioa kalkulatzeko kontuan hartzen da.

Orrialde honetan gai honekin lotutako informazioa modu eroso eta errazean jaso ahal izango duzu.

» LH Duala Euskadi 

SALBUESPENAK, BALIOKIDETASUNAK, HOMOLOGAZIOAK ETA BALIOZKOTZEAK

HEZKUNTZA IKUSKARITZA. SALBUESPENAK, BALIOKIDETASUNAK, HOMOLOGAZIOAK ETA BALIOZKOTZEAK.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hezkuntza Ikuskaritzak dokumentu bat argitaratzen du urtero, salbuespenei, baliokidetasunei, homologazioei eta baliozkotzei buruzko informazio eguneratu guztiarekin.

» [Hezkuntza-ikuskaritza – Eusko Jaurlaritza.Lanbide Heziketa – salbuespenak, baliozkotzeak, baliokidetasunak eta homologazioak – 2025-20026 ikasturtea](#)

SALBUESPENAK

Salbuespenek ondorio akademikoak dituzte, eta modulu edo gai bat egin behar ez izatea esan nahi dute. Ildo berean, modulu hori ez egiteko zergatiak indarrean dagoen araudian jasota egon behar dute.

BALIOKIDETASUNAK

Baliokidetasunak amaitutako ikasketen truke bakarrik ematen dira, eta ezagutza publikokoak dira, Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE, gaztelaniazko siglei dagokienez) argitaratzen baitira. Horren bidez, titulu jakin batek (edo interesdunak gainditutako ikasketa multzo batek) beste baten ondorio berdinak dituela aitortzen da. Edonola ere, baliokidetasunak ez du egungo titulua edo titulu baliokide bat eskuratzeko eskubiderik ematen.

Baliokidetasunaren ondorioak:

- » **LAN-ARLOKOAK:** prestakuntza-maila jakin bat eskatzen duten enplegu publiko edo pribatuak lortzeko aitortpena eskaintzen du.
- » **AKADEMIKOAK:** prestakuntza-ibilbide formalarekin jarraitu ahal izateko, sarbide-baldintza gisa aitortuko da.

HOMOLOGAZIOAK

Unibertsitatez kanpoko atzerriko tituluak, diplomak edo ikasketak homologatzeak esan nahi du atzerriko titulu horiek indarrean dagoen Espainiako hezkuntza-sistemaren tituluen baliokideak izango direla, ondorio akademiko eta profesional guztietarako. Autonomia-erkidego honetan, Hezkuntza Saileko Ikasketen Antolamendurako Zerbitzuari eskatu behar zaizkio homologazioak.

Unibertsitateaz kanpoko atzerriko ikasketak osorik edo zati batean homologatzeko izapideak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sortutako aplikazio informatikoan egiten dira.

Prozedura horri buruzko informazioa [Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren webgunean dago](#).

BALIOZKOTZEAK

Baliozkotzeak ondorio akademikoetarako eta lan-ondorioetarako izango dira baliiodunak, eta, beraz, baliozkotzeak eskatzen dituen pertsona dagokion mailan egin daiteke bat hezkuntza-sistemarekin. «Baliozkotzea» pertsonaren kompetentziak frogatzen dituen prestakuntzaren bat aurkeztean datza.

Honako hauek baliozkotzea eska dezakezu:

- » Heziketa-ziklo desberdinetako lanbide-moduluak.
- » Egiatzen-prozedura baten bidez egiaztatutako gaitasun-estandarrik.
- » LHko atzerriko ikasketak, homologazioa lortzen ez denean.
- » LHren eta unibertsitateko ikasketen arteko goi-mailako hezkuntzako kredituak.
- » Erdi-mailako heziketa-zikloetako lanbide-moduluak eta batxilergoko irakasgaiak, ziklo bakoitza arautzen duen araukzehazten duen moduan.

Maila bereko heziketa-zikloen artean honako hauek baliozkotu ahal izango dira:

- » Ingeles profesionala.
- » Produktzio-sektoreei aplikatutako digitalizazioa, betiere lanbide-arlo bereko heziketa-zikloak badira.
- » Produktzio-sistemari aplikatutako jasangarritasuna, betiere lanbide-arlo bereko heziketa-zikloak badira.

Ezin dira baliozkotu honako hauek:

- » Enpresako prestakuntza.
- » Modulu arteko proiektua.
- » Erdi- eta goi-maila arteko ingeles profesionala.
- » Erdi- eta goi-maila arteko digitalizazioa.

HASIERAKO LANBIDE HEZIKETA

Hasierako Lanbide Heziketa aniztasun handiko ikasleen beharrei erantzuteko diseinatuta dago. Ikasketa hauek amaitzean, helburua da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua, Oinarrizko Mailako titulua eta, hala badagokio, Erdi Mailako titulua eskuratzea, baita ziurtagiri profesionala ere. Tituluek eta ziurtagiriek honako hauek dute xede: lanbide-gaitasunak eta enplegarritasunerako gaitasunak eskuratzea, eta, era berean, bizialdi osoan zehar ikasten jarraitzeko gaitasunak garatzea.

IBILBIDEAK

Kolektibo horiei erantzuteko, Hasierako Lanbide Heziketa hainbat ibilbidetan egituratuta egongo da. Honako hauek dira:

» IKASKUNTZAKO IBILBIDE ARRUNTAK:

Ibilbide honen helburua bi urtetan prestakuntza egituratu baten bidez oinarrizko mailako gradua eta DBHko titulua eskuratzea da.

» IKASKUNTZAKO IBILBIDE INTEGRATUAK:

Ibilbide honen helburua lau urtetan prestakuntza egituratu baten bidez oinarrizko eta erdi-mailako graduen tituluak eskuratzea da.

» IKASKUNTZAKO IBILBIDE EGOKITUAK:

Ibilbide hauen iraupena hiru ikasturtekoa izango da. Kasu honetan, formakuntza programa zeharkako gaitasunak indartzeko edukiekin osatuko da, eta bi modalitate daude: bata, Hezkuntza Laguntzako Berariazko Premiak dituzten ikasleentzat, eta bestea, aurretiko ikasketarik ez duten 16 urtetik gorako ikasleentzat.

» IKASKUNTZAKO IBILBIDE MALGUAK:

Ibilbide honetan ikaskuntza programa Oinarrizko mailako zikloen berariazko lanbide-moduluetan oinarrituko da, eta zeharkako gaitasunak ere landuko dira. Ibilbide hau hezkuntza-laguntza premia bereziak dituzten ikasleentzat diseinatuta dagoi eta aukera emango die egokitutako erritmo batean kompetentzia-ziurtagiriak eta ziurtagiri profesionalak eskuratzeko.

HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK (HLBP) DITUZTEN IKASLEENTZAKO APARTEKO NEURRIAK.

BHLPa dituzten ikasleen ikaskuntza-prozesua, irisgarritasun unibertsalerako eskubidea eta aukera-berdintasunerako eskubidea errazte aldera, ikastetxe integratuek honako neurri hauek hartuko dituzte:

- » Azterketak, lanak, proiektuak eta abar egiteko epea luzatzea.
- » Probak ahoz –eta ez idatziz– egiteko aukera eskaintzea.
- » Lanbide-heziketako ikastetxe integratuak proposatutako aparteko beste neurri batzuk, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak baimendu beharko dituenak.

IKASGUNEA

Herritarrek eskuragarri duten ataria da Ikasgunea. Bertan, Hezkuntza Sailak duen informazio akademikoa eskuratzeko aukera ematen zaie ikasleei eta euren familiei, eta, hala, herritarrek eta Administrazioa elkarrekin harremanetan egoteko baliagarria izan daitekeen kanala eskaintzen da.

www.ikasgunea.euskadi.eus

EKINTZAIETZA ETA BERRIKUNTZA

PROIEKTU BATI EKITEA LHKO NIRE IKASTETXETIK

Ikasapresa ikasgeletan eskola-enpresak sortzearen inguruan garatzen den hezkuntza-programa da. Proiektu horren helburuen artean, enpresaren mundua ikasgeletara hurbiltzea dago, baita gaitasun ekintzaileen garapena sustatzea ere: sormena, berrikuntza, talde-lana, erabakiak hartzea, informazioaren kudeaketa, inizatiba, lidergoa, konpromisoa, negoziatzea, eta abar. Horrez gain, ikaslea, beste kultura eta gizarte-errealitate batzuetara hurbildu eta ikastetxeen arteko elkarlana sustatu nahi da.

Idea eta aukera berriak sortzea eta garatzea sustatzen eta laguntzen duten balio, jarrera, trebetasun eta portaeren multzo gisa ulertzen dugu kultura ekintzailea, baita ideia eta aukera horiek praktikan jartzeko gaitasuna ere.

Idea ekintzaile bat sortzeko eta abian jartzeko erronka planteatzen dugu, non ikasleek eragile nagusiaren eginkizuna duten euren talentuaren garapenari dagokionez.

Erronka horretan aurrera egiteko, ideia ekintzaileek honako baldintza hauek betetzea proposatzen diegu irakasle-taldee: lanbide-arloarekin erlazionatuta egotea, berritzaileak izatea eta –4.0 Balioak kontuan harturik– balio ekonomikoa ez ezik, balio soziala edo kulturala ere sortzea, eraldaketa sozial integratzaileagoa lortzeko lagungarriak izan daitezen.



ikasapresa

Gaitasunak lantzen
Trabajando competencias

IKASAPRESA KULTURA EKINTZAILEA 

ENPRESAK SORTZEA

Urratsbat enpresak sortzen laguntzeko programa da, eta Erdi-mailako eta Goi-mailako lanbide-heziketako ikastetxeetako ikasleei, ikastetxeko ikasle ohiei eta prestakuntza ez-arautuko edo prestakuntza ez-presentzialeko ikastaroen bidez ikastetxearekin harremana duen edozein pertsonari zuzenduta dago.

Enpresa abian jartzeko prozesuan, Urratsbat programak hainbat baliabide eskaintzen dizkio ekintzaileari: aholkularitza integraleko zerbitzua, ikastetxean behar bezala ekipatutako bulego bat erabiltzeko aukera (enpresa abian dagoen lehen hilabeteetarako), eta –proiektuak hala eskatzen badu– beste instalazio batzuk erabiltzeko aukera (ikastetxeko tailerrak, adibidez, azterketa-fasean produktuaren prototipoak egiteko).



urratsbat

Enpresak sortzen
Creando empresas

URRATSBAT PROIEKTUA 

IBILBIDE PROFESIONALA KUDEATZEA

Lan-munduan sartzea ez da erraza. Horregatik, jarraian, lana bilatzen hasteko, nora jo dezakezun eta zer egin jakiteko baliagarriak izango zaizkizun zenbait jarraibide emango dizkizugu.

Batez ere, hiru urratsetan jarri beharko duzu arreta:

- » Aurkezpen-gutuna
- » Curriculuma
- » Elkarrizketa pertsonala

Oso informazio erabilgarria eskura dezakezu [Eusko Jaurlaritzaren](#) esteka honetan.

[TodoFP](#)-ko «Orientazioa» atalean lana bilatzeko dauden argibideak ere lagungarriak izan daitezke.

EUROPASS (ATZERRIAN LAN EGIN NAHI DUT)

Europass Osagarria Lanbide Heziketako titulu ofizial bati erantsitako dokumentua da, eta horren xedea tituluaren jabeak bereganatu dituen gaitasunak hirugarrenei –eta, bereziki, beste herrialde bateko enplegatzaile edo erakundeei– ulertzen laguntzea da.

Europass Osagarriak ez du titulu ofiziala ordezkutzen; aitzitik, **informazio gehigarria ematea helburu duen osagarria da**, gaztelaniaz eta ingelesez eskuragarri dagoena.

- » [Heziketa-ziklo, espezializazio-ikastaro, ziurtagiri profesional edo LOGSE tituluaren osagarriak deskargatu.](#)

Europas, CV formatu ospetsuenetako bat [Europass CV](#) da. Enpresa eta hezkuntza-erakundeei ezaguna egiten zaie, eta formatu hori erabiltzea oso erraza da haientzat.

Lehenik eta behin, [Europass profila sortu](#) beharko duzu, eta, bertan, zure heziketari, prestakuntzari, lan-esperientziari eta gaitasunei buruzko datuak idatzi beharko dituzu. Europass profila osatu ondoren, pare bat klik baino ez dituzu egin behar izango behar adina curriculum eskuratu ahal izateko. Hautatu sartu nahi duzun informazioa, aukeratu nahiago duzun eredu, eta laga gainontzekoa Europass-en esku.

Zure curriculuma 31 hizkuntzatan sortu, gorde eta parteka dezakezu. Zure Europass CVa deskargatu ondoren, gorde zure Europass Liburutegian eta bidali enpresei, edo partekatu [EURES](#) eta beste enplegu-atari batzuetan.

GAITASUN DIGITALEN GAINKO EUROPAKO ESPARRUA

[DigComp](#) Europako herritarren gaitasun digitala garatzeko esparru zehatza da. Esparruak digitalki lehiakor izateko behar diren gaitasun guztien deskribapen zehatza eskaintzen du, eta ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak deskribatzen ditu. Gainera, gaitasun bakoitzak barne hartzen dituen mailak azaltzen ditu ere.

ATZERRIKO HIZKUNTZAK

- » [Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa](#) 

HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA

- » Euskadiko hizkuntza eskola ofizialak [↗](#)

EUSKERA IKASTEA

- » HABE EUSKALTEGIAK [↗](#)
- » AEK EUSKALTEGIAK [↗](#)
- » INGURA [↗](#)

EUSKERAZ IKASTEA

FP Euskadik D ereduan Lanbide Heziketa zabala eskaintzen du. [Esteka honetan kontsultatu](#) [↗](#)

47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskera-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko dena. Dekretu honen xedea da Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailaren batean euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzea, eta euskara-maila horretako hizkuntzatituluak eta -ziurtagiriak egiaztatzen salbuestea ikasketa horiek egin dituzten pertsonak.

Dekretu horretan honako hauek arautzen dira:

- » Batxilergoko tituluarekin eta LHko goi-mailako teknikariarekin lotutako salbuespenak.
- » Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluarekin eta Lanbide Heziketako teknikariarekin lotutako salbuespenak.

Euskara tituluen eta ziurtagirien erregistro bateratua [↗](#)

LH ETA UNIBERTSITATEA: LHKO GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOEN ONDORIOZ UNIBERTSITATEKO IKASKETETAN LORTZEN DIREN AITORPENAK

LHko Goi-mailako heziketa-zikloen ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetako graduiko ikasketetan onartutako aitortpenak kontsulta daitezke, [esteka honetan](#).

Hemen ere bila dezakezu informazioa:

- » EHUren Ikasleentzako Argibide Zerbitzua. [↗](#)
- » Goi Mailako Heziketa Zikloetatik sartzea [↗](#)
- » Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko aitortpenak [↗](#)
- » Deustuko Unibertsitateko aitortpenak [↗](#)
- » Mondragon Unibertsitateko aitortpenak [↗](#)

IV BLOKEA

IKASGELATIK ENPRESARA: LAN-MUNDUAN TXERTATZEA

LAN-MUNDUAN TXERTATZEA	26
Lanbide (Euskal enplegu-zerbitzua)	26
Lan-munduan txertatzeko programak	26
SEPE - Tituludunen lan-merkatua	26
LANBIDE ARAUTUAK	26

LAN-MUNDUAN TXERTATZEA

LANBIDE (EUSKAL ENPLEGU-ZERBITZUA)

Enplegurako Lanbide-heziketak ikasten jarraitzeko aukera ematen die bai lanean ari direnei, bai langabeei; eta, beraz, langabeei zein lanean ari direnei zuzendutako prestakuntza barne hartzen du.

www.lanbide.euskadi.eus 

LAN-MUNDUAN TXERTATZEKO PROGRAMAK

**Global training
bekak** 

Goi-mailako heziketa-zikloak)

Lehen aukera 
Ayudas para la contratación de
personas jóvenes desempleadas

ikasenplegu 
Lan-Bitartekaritza
Zerbitzua

SEPE - TITULUDUNEN LAN-MERKATUA

SEPEren (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) orrialdean, titulazioaren araberako kontratazioari buruzko informazioa aurkituko duzu:

www.sepe.es/ 


LANBIDE ARAUTUAK

Lanbide arautuetan jardun ahal izateko, legeak edo araudiak ezarritako baldintza zehatzak bete behar dira. Normalean, baldintza horiek barne hartzen dute LHko titulu ofizial bat edo lanbide horri dagokion ziurtagiri profesional bat lortzea (besteak beste).

Lanbide-tituluei dagokienez, «Titulu baliokideak eta gaitasun profesionalekiko lotura» izeneko xedapen gehigarrian daude zehaztuta baldintza horiek. Ziurtagiri profesionalen kasuan, berriz, «Lanbide-ingurunea» atalean edo «Lan egin ahal izateko derrigorrezko baldintzak» atalean ageri dira.

ARAUTUTAKO LANBIDEEN LIBURUA

«Ziurtagiri profesionalak, familiaka
multzokatuak» 

«LHko tituluak, familiaka
multzokatuak» 

Lanbidea arautzen duen araudia berrikusi behar da beti, tituluari/ziurtagiri profesionalari dagokion Errege Dekretuak / Dekretuak jasotzen duena zaharkituta baitago batzuetan.

V BLOKEA

ENPRESATIK IKASGELARA, ESPERIENTZIA PROFESIONALA DA NIRE TITULUA

KONPETENTZIA PROFESIONALAK EGIAZTATZEA	28
Prozeduraren faseak	28
Nola lor dezaket nire ziurtagiri ofiziala prozedura burutu ondoren?	28
IKASKUNTZA-BITARTEKARITZARAKO ESKUALDEKO ZERBITZUAK	29

KONPETENTZIA PROFESIONALAK EGIAZTATZEA

Lan-esperientziaren bidez edo beste bide ez-formal eta informal batzuen bidez eskuratutako konpetentziak egiaztatzeko prozedura hezkuntza-esparrutik at eskuratutako konpetentziak ebaluatzeko eta aitortzeko jarduketan multzoa da.

Gaitasun profesionalak kualifikazio handiagoa lortzeko bidea dira, Lanbide Heziketako Sistemaren esparruan prestakuntza-ibilbide berriak egiteko aukera ematen baitute, lan-merkatuan ditugun trebetasunak ikusteaz gain.

IVAF-EI [Elen orrialderako esteka honetan](#), horri buruzko informazioa kontsulta dezakezu, eta gida honetan, berriz, modu grafikoan deskribatutako prozeduraren urratsak ikus ditzakezu.

PROZEDURAREN FASEAK



IZEN-EMATEA:

Gaur egun, uneoro dago irekita Euskal Autonomia Erkidegoko LHko titulu ia guztietarako. Izen-ematea honela egin daiteke:

- » **Aurrez aurre:** Izena aurrez aurre emateko, sare publikoko edo itunpeko lanbide-heziketako ikastetxe hauetara jo dezakezu. [↔](#)
- » **Online:** Izena online emateko, **ikasgunea** aplikazioan sartu behar zara, Administrazio Prozedurak eta Laguntzak - PEAC atalean. [↔](#)
- » **Laguntza gehiago** nahi izanez gero, **Hautagaiaren gidaliburua** kontsulta dezakezu. [↔](#)



AHOLKULARITZA:

Ibilbide osoan zehar, aditu batek lagundu eta orientatuko zaitu, eta –elkarrizketa profesional baten bidez– zure lanbide- eta prestakuntza-historia jasoko ditu.



EBALUAZIOA:

Adituz osatutako batzorde batek zure konpetentzien dosierra eta aholkularitza-txostena aztertuko ditu, eta –beharrezkotzat jotzekotan– konpetentzien bat egiaztatzeko probak egitea proposatuko du.



EBAZPENA:

Ebazpena eman ondoren, Prestakuntza-plan bat jasoko duzu, eta, plan horren bidez, C gradua (ziurtagiri profesionala) edo D gradua (lanbide-heziketako titulua) lortzeko falta zaizun prestakuntza jakinaraziko zaizu.

NOLA LOR DEZAKET NIRE ZIURTAGIRI OFIZIALA PROZEDURA BURUTU ONDOREN?

- » Profesionaltasun-ziurtagiri zahar bati dagokion lanbide-ziurtagiri bat lortzeko, **LANBIDE**ra jo behar duzu, hark igortzen baititu gaur egun, eta dagokion ziurtagiria eman arte, aldeko balorazio-txosten bat eska daiteke.
- » Lanbide-moduluz osatutako C gradu berrien kasuan, gainditu ondoren matrikula egin den lanbide-heziketako ikastetxeek emango dituzte dagozkien ziurtagiriak.
- » Egiaztatutako kompetentzia-ataletatik abiatuta LHko tituluen lanbide-moduluak baliozkotzea eskatzeko, matrikula Lanbide Heziketako ikastetxe batean egin behar da.
- » Lanbide Heziketa Osoaren atarian, zure prestakuntza eta akreditazioa erakusten dituen prestakuntza- eta lanbide-txostena eska dezakezu.

Seder Electrónica - Ministerio de Educación FP y Deportes [↔](#)

IKASKUNTZA-BITARTEKARITZARAKO ESKUALDEKO ZERBITZUAK

Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzua Hezkuntza Sailak doan eskaintzen duen zerbitzua da. Zerbitzu horrek Euskadiko eremu edo eskualde jakin batean abian jarritako ikaskuntza-jarduerei buruzko informazioa eta interesdunek dituzten aukeren inguruko aholkularitza eta orientazioa eskaintzen ditu; eta, are gehiago, bizi osoan zehar ikasteko beharra sustatzen duten ekintzak bultzatzen ditu ere.

Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuaren helburua prestakuntza eta bizi osoan zehar ikasteko grina euskal herritar guztien esku jartzea da. Izan ere, zerbitzu horrek arreta berezia jartzen du egoera ahulenean dauden eta prestakuntza-ibilbideetatik urrun dauden pertsonetan.

Esteka honetan, hainbat bitartekaritza-zerbitzu aurkituko dituzu, kokapenaren arabera. [↔](#)

ERANSKINAK

I. ERANSKINA. GLOSARIOA	31
II. ERANSKINA. «TODO FP» GLOSARIOA	34
III. ERANSKINA. BIBLIOGRAFIA ETA LEGEDI GARRANTZITSUENA	34

I. ERANSKINA. GLOSARIOA

Lanbide Heziketaren Antolamendu eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

1. IRAKASKUNTZA EDO HEZKUNTZA FORMALA

Titulu, akreditazio edo ziurtagiri ofiziala lortzeko prestakuntza-prozesu egituratua.

2. IRAKASKUNTZA EDO HEZKUNTZA EZ-FORMALA

Titulu, akreditazio edo ziurtagiri ofiziala eskuratzeko balio ez duen prestakuntza-prozesu egituratua.

3. IKASKUNTZA INFORMALA

Prestakuntza-prozesu formalei edo ez-formalei lotuta ez dauden jarduerak garatzetik edo gauzatzetik eratorritako ikaskuntza (boluntariora barne).

4. OINARRIZKO GAITASUNAK

Pertsona gisa errealizatzeko eta garatzeko, gizartean modu aktiboan parte hartzeko, edo lana lortzeko gaitasuna hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren gaitasunak dira. Gaitasun horiek hainbat bidetatik garatzen dira, eta pertsonen garapen integrala sustatzen dutenez, lanbide-heziketako eskaintza guztiek barne hartzen dituzte.

5. KONPETENTZIA PROFESIONALA

Jarduera profesionala produkzio- eta enplegu-eskakizunen arabera garatzeko behar diren ezagutzen eta gaitasunen multzoa da. Konpetentzia profesionalak «konpetentzia profesionalen estandarretan» jasota daude, eta –ildo berean– unitate horiek lanbide-heziketako edozein eskaintza diseinatzeko erabiliko dira.

6. KUALIFIKAZIOA

Titulu, ziurtagiri edo egiaztapenen bidez ofizialki egiaztatutako jarduera profesional batean aritzeko gaitasuna da. Kualifikazioen Espainiako Esparruan (MECU, gaztelaniarazko siglei dagokienez) erabiltzen denean soilik: hezkuntza-erakunde batek emandako edozein titulu edo ziurtagiri, betiere horrek egiaztatzen badu ikasleak ikaskuntza-emaizak lortu dituela, Lanbide Heziketako Sistemaren eremuan legez aitortutako erakunde batean prestakuntza-programa bat behar bezala burutu ondoren.

7. KONPETENTZIA-ELEMENTUA

Pertsonarengandik espero den portaera deskribatzen duen jarduera profesional bakoitza; hots, pertsonak lanbide batean egiten dituen jardueren ondorio edo emaitzak. Konpetentzia-estandar baten zatirik txikiena da.

8. KONPETENTZIA-ESTANDARRA

Jarduera profesional jakin bat –eskatutako kalitate-estandarrei jarraikiz– egitearekin lotutako jarduerak eta zereginak nola egin deskribatzen duten konpetentzia-elementuen multzo zehatza da. Lanbide-heziketako eskaintzak diseinatu, garatu eta eguneratzeko erreferentziazko unitatea edo elementua izango da.

9. BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZA

Pertsona batek bizitza osoan zehar burutzen dituen ikasketen multzoa da.

10. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

Hasierako prestakuntza burutu eta lan-munduan sartu ondoren egindako edozein prestakuntza da, hezkuntza-sistemak barne hartutakoa edo ez. Prestakuntza honen helburua pertsona bakoitzari bere ezagutzak edo gaitasunak eskuratzeko, zabaltzeko edo eguneratzeko aukera ematea da, bere garapen pertsonal edo profesionalaren ibilbidea egokitzeko, mailaz igotzeko edo birmoldatzeko. Prestakuntza hau ez dago prestakuntza-eskaintza motarekin lotuta, baizik eta pertsona bakoitzaren prestakuntza-ibilbideko ikaskuntza-prozesuarekin (hasierako prestakuntza burutu eta lan-merkatu aktiboan sartu ondoren).

11. HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Hezkuntza-sisteman jasotako prestakuntza, eskolaratzea hasten denetik hura amaitu arte (lanean hasteagatik). Prestakuntza hau ez dago prestakuntza-eskaintza motarekin lotuta, baizik eta pertsona bakoitzaren prestakuntza-ibilbidearen unearekin (hasierako prestakuntza burutzen duen bitartean eta lan-merkatu aktiboarekin bat egin aurretik).

12. LANBIDE-HEZIKETA DUALA

Lanbide-heziketako ikastetxearen eta horren parekoa den enpresa edo erakundearen arteko irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak bateratuz burutzen den lanbide-heziketa; izan ere, bi eragile horiek izango dira erantzunkide, prestakuntza jasotzen ari den pertsonaren enplegarritasuna hobetze aldera.

13. HEZITZAILEA

Pertsonak hezteko jarduera bat edo batzuk burutzen dituen pertsona oro, dela lanbide-heziketako ikastetxe batean (hezkuntza-sistemako irakasle izan gabe), dela enpresan edo pareko erakunde batean.

14. KALITATE-ADIERAZLEA

Arlo profesionalean jarduera edo zeregin bat betetzeko eskatzen den gutxieneko kalitate-maila ezartzen duen irizpidea da, betiere erakunde ekoizleen helburuak betetzen baditu. Konpetentzia-elementuekin batera, kalitate-adierazleek konpetentzia profesionalak ebaluatzeko gida osatzen dute.

15. PRESTAKUNTZA-IBILBIDEA

Bizitzan zehar gaitasunak eskuratzeko, eguneratzeko, osatzeko eta zabaltzeko pertsona bakoitzak eraikitako proiektua da, eta, behar izanez gero, orientazio profesionaleko zerbitzuen laguntzarekin garatzen da.

16. KUALIFIKAZIOEN ESPAINIAKO ESPARRUA

Esparru hau nazioartean aitortutako tresna da, eta haren xedea titulazioak modu koherentean baliozkotzea da, horiek sailkatze, erlazionatze eta parekatze aldera. Era berean, pertsonen mugikortasuna Europan zehar eta nazioarteko lan-merkatuan errazteko balio du ere.

17. KOMPETENTZIA-ESTANDARREI LOTUTAKO MODULU PROFESIONALA

Prestakuntza-unitate koherentea da, eta hori gainditzeak lotutako gaitasunak lortu direla bermatzen du.

18. KOMPETENTZIA-ESTANDARREI LOTUTA EZ DAGOEN MODULU PROFESIONALA

Aurreikusitako kompetentzia profesionalak lortzeko ezinbestekotzat jotzen den prestakuntza-unitate koherentea da (teorikoa zein praktikoa).

19. ORIENTAZIO PROFESIONALA

Norberaren prestakuntza-ibilbidearen eta ibilbide profesionalaren plangintza egitean informazioa eta laguntza jasotzeko prozesua da, Lanbide Heziketako Sistemaren esparruan. Izan ere, informazioa eta laguntza lortzeko prozesu horrek eremu hauek hartzen ditu barne gutxienez: lanbide-heziketako aukerak, lanbide bat hautatzea, gaitasunak hobetzea, lanbidez aldatzea, lan-merkatuaren bilakaera, proiektu bati ekiteko aukerak, eta ibilbide profesionala kudeatzeko trebetasunak garatzea.

20. PAREKO ERAKUNDEA

Lanbide-heziketako eskaintzen esparruan tutoretzapeko prestakuntza-jarduerak –eskatutako baldintzetan– burutu ahal izateko lantoki bat (gutxienez) duen erakundea. Erakunde horren izaera juridikoa edozein izan daiteke, eta enpresaz bestelako erakundea izan beharko da.

21. BITARTEKO ERAKUNDEA

Lanbide-heziketan parte hartze aldera, enpresei aholkularitza eta laguntza ematen dien edozein erakunde, elkarte, federazio, konfederazio, merkataritza-ganbera, kluster eta abar. Hala, erakundeak ikastetxe edo administrazioekin harremanetan jartzeko prozesua errazten da.

22. LANGILEA

Besteren konturako langile, langile autonomo, bazkide langile edo kooperatibetako langile oro.

23. IKASKUNTZAREN EMAITZA

Curriculumaren oinarritzko elementua da, eta ikasle batek zer barneratu, ulertu eta egiteko gai izan behar duen deskribatzen du. Ikaskuntzaren emaitzak kompetentzia-elementuei lotuta daude, eta curriculumeko gainerako elementuak orientatzen dituzte (ikasleak emaitza lortu duenetz egiaztatzeko ebaluazio-irizpideak barne).

24. IKASKUNTZARAKO DISEINU UNIBERTSALA (IDU)

Ikasle bakoitzaren ikaskuntza-prozesuaren berezitasuna aitortzen duen eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen eta -inguruneen irisgarritasuna sustatzen duen hezkuntza inklusiborako irakaskuntza-eredua da. Horretarako, ikasle guztien ikaskuntza-behar eta -erritmoetara egokitutako curriculum malgua erabiltzen da.



II. ERANSKINA. «TODO FP» GLOSARIOA

Kontsultatu TODO FP-ren glosarioa ondorengo estekan.

[GLOSARIO TODO FP](#) 

III. ERANSKINA. BIBLIOGRAFIA ETA LEGEDI GARRANTZITSUENA.

Lanbide Heziketako legedia:

- » [Hezkuntza Saila - Eusko Jaurlaritza](#) 
- » [Todo FP - Araudia](#) 
- » [Hezkuntza-ikuskaritza – Eusko Jaurlaritza.Lanbide Heziketa – salbuespenak, baliozkotzeak, baliokidetasunak eta homologazioak – 2025-20026 ikasturtea.](#) 